

# 9/22

## *irizpena*

EAEko 7-15 urteko biztanleen aho-hortzen osasunaren arloko prestazio sanitarioari buruzko

Dekretu-proiektuaren gainekoa

Bilbon, 2022eko ekainaren 17a



CES  
EGAB

Consejo Económico  
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte  
Araoetarako Batzordea

Irizpena 9/22

---

## I.- AURREKARIAK

---

2022ko maiatzaren 27an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean Osasun Sailaren idazkia sartu zen eta txostena eskatu zuen *Euskal Autonomia Erkidegoko 7-15 urteko biztanleen aho-hortzen osasunaren arloko prestazio sanitarioari buruzko Dekretu-proiektuaren gainean, 8/2012 Legeak, maiatzaren 17koak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzkoak, 3.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.*

*Arau honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko 7-15 urteko biztanleen aho-hortzen osasunaren arloko prestazio sanitarioaren edukia eta irismena zehaztea, baldin eta Euskadiko Osasun Sistemaren kargura laguntza sanitario publikorako eskubidea badute.*

Berehala agiriaren kopia Batzordearen Osoko Bilkurako kide guztiei bidali zitzairen, proposamenak eta iritziak igorri eta guztiak lan batzordeari helarazteko, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen funtzionamenduari buruzko araudiak xedatutakoari jarraiki. Gizarte Garapenerako Batzordea 2022ko ekainaren 14an bildu ostean, hartutako erabakietatik abiatuta, irizpen-proiektu hau egin da Batzordearen osoko bilkurak ekainaren 17ko bilkuran lan dezan. Aho batez onartu da.

## II.- EDUKIA

---

*“Euskal Autonomia Erkidegoko 7-15 urteko biztanleen aho-hortzen osasunaren arloko prestazio sanitarioari buruzko Dekretu-proiektuak” zioen azalpena, 8 kapitulutan banatutako 31 artikulua, xedapen osagarri bat, xedapen iragankor bat eta bi azken xedapen ditu, eranskin batekin batera.*

**I. KAPITULUKO (XEDAPEN OROKORRAK) 1. artikuluan** dekretuaren xedea eta aplikazio-eremua ezartzen dira.

**II. KAPITULUAK (HAURREN HORTZAK ZAINTEKO PROGRAMAREN PRESTAZIOAK) (2. artikulutik 7. artikulura)** Haurren Hortzak Zaintzeko Programaren (aurrerantzean, PADI) prestazioak, aho-hortzen zaintza, hortzak zaintzeko kapitaziozko oinarrizko tratamenduak, aho-hortzak zaintzeko tratamendu bereziak eta baztertutakoak ditu.

Aho-hortzen zaintzan honako jarduketa hauek sartzen dira: a) aho-hortzen osasuna urtero aztertzea, b) oinarrizko tratamendu prebentibo eta terapeutikoak eta c) tratamendu bereziak.

Baztertutako prestazioen artean daude ortodontziako tratamenduak eta aldi baterako hortzak kontserbatzeko tratamenduak, dekretu honen 6.4 artikuluan adierazitakoa gorabehera.

**III. KAPITULUAN (ONURADUNEN ESKUBIDEAK ETA ESKAKIZUNAK) (8. artikulutik 10. artikulura)** urte natural bakoitzean gaitutako pertsonen artean gurasoek, tutoreek edo zaintzaren arduradunek aske hautatzeko aukera arautzen da. Halaber, onuradunen eskubideak eta betebeharrak arautzen dira.

**IV. KAPITULUAN (11. artikulutik 15. artikulura) PROGRAMAREN KUDEAKETA** zehazten da, hau da: zerbitzua emateko moduak, pertsona fisiko edo juridiko trebatuari sistema publikoaren zerbitzuzorroko osasun-prestazioak emateko gaitasunaren administrazio-egintza, gaikuntza lortzeko eskakizunak eta balizko aldaketak nahiz azkentzeko arrazoiak.

**V. KAPITULUAN (21. artikulutik 23. artikulura) GAITUTA DAUDEN PERTSONEN BETEBEHARRAK ETA ESKAKIZUNAK** xedatzen dira.

**VI. KAPITULUAK (ARAUBIDE EKONOMIKOA) (24-29 artikulua)** honako hauek arautzen ditu:

oinarrizko hortz-zaintzagarriko eta tratamendu bereziagarriko ordainsaria, emandako hortz-zaintzagarriko prezioaren ordainketa, Haurren Hortzak Zaintzeko Programaren Informazio Sistemaren bidez (SIPADI) egin behar diren jarduketak, izapide elektronikoak eta fakturak aurkeztea.

**VII. KAPITULUAN KONTROLA, JARRAIPENA ETA IKUSKAPENA** arautzen dira, eta **VIII. KAPITULUAK ZEHAPEN-ARAUBIDEA** garatzen du.

**XEDAPEN GEHIGARRIA** administrazioarekin elektronikoki erlazionatzearen eskubideari eta betebeharrari buruzkoa da.

**XEDAPEN IRAGANKORRAK** araubide iragankorra du.

**AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOAK** saileko titularrari ahalmena ematen dio dekretu honetan dauden prestazioen edukia eta irismena eguneratzeko eta araubidezko garapena emateko, bai eta tarifak eguneratzeko ere.

**AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA** dekretua indarrean jartzearen ingurukoa da.

Azkenik, **ERANSKIN** bat dago elkar onartzeko dokumentuekin eta gaitutako pertsona fisikoei eta juridikoei ordaindu behar zaizkien zenbatekoekin.

### **III.- GOGOETA OROKORRAK**

---

#### **Politikaren eta arauen esparruko aurrekariak**

Eusko Jaurlaritzako hortz-osasunaren politikari 80ko hamarkadaren amaieran ekin zitzaion. Araumugarri nagusien artean honako hauek azpimarra ditzakegu:

- 49/1988 Dekretua, martxoaren 1ekoa, edateko urei fluorra botatzeari buruzkoa (osasun publikoaren neurri prebentibo gisa, txantxarrak prebenitzeko Osasunaren Munduko Erakundeak adierazitako gidalerroei jarraikiz).
- 285/1989 Dekretua, abenduaren 29koa, Euskadiko Hortz-ahoko Osasunaren Euskal Autonomia Erkidegoko Kontseilu Aholkuemailea (HOEKA) sortzen duena.
- 118/1990 Dekretua, apirilaren 24koa, EAEko haurren hortzak zaintzeari buruzkoa.
- 1990eko maiatzaren 2ko Agindua, Osasun eta Kontsumo sailburuarena, Haurren Hortzei buruzko Programan sartuta dauden haurren hortz-ahoen zaintzarako nahitaezko gutxieneko edukia finkatzen duena.
- 1990eko maiatzaren 3ko Agindua, Osasun eta Kontsumo sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Haurren Hortz Programarako behar diren mediku estomatologoak edo odontologoak gaitzeko-kontratatzeko eskakizunak eta prozedura arautzen dituena.
- 77/1997 Dekretua, apirilaren 8koa, Osasun Sailak osasun-zerbitzuak ituntzeko oinarriak zehazten dituena.

Azkeneko hiru arau hauek EAEn haurren hortzak zaintzeko programaren (PADI) edukia eta zerbitzuak kanpoko bitartekoen bidez ematen direnean emateko modua arautzen dituzte.

Hala eta guztiz ere, EAEko haurren hortzak zaintzeari buruzko apirilaren 24ko 118/1990 Dekretua indargabetuta gelditu zen Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legea indarrean jarri zenean eta 2000. urtean 1990eko maiatzaren 3ko Agindua aplikatzeari utzi zitzaion.

Harrezkero, EAEko 7-15 urteko biztanleen aho-hortzen arloko prestazio sanitarioa kontratazio publikoaren bidez eman da, hau da, odontologo eta estomatologo pribatuak kontratatu dira, eta deialdi publikoak egin dira prozedura irekiaren bidez zerbitzu publikoen kudeaketa-kontratu administratiboak sinatzeko.

Esperientziak argi utzi du administrazio-kontratuak zerbitzu horiek emateko arinak ez direla, lizitazio berrira arte (5 urteko iraupena) ezin baitaitezke profesional gehiago kontratatu. Gainera, jarduteko modu horrekin egiaz ez dira eskaintzarik onena hautatzeko lehia-prozedurak egiten. Aurretiaz zehaztutako eskakizunak betetzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiak zerbitzua emateari atxiki zaizkio.

Horregatik, beharrezkotzat jo da sistema aldatzea, edozein profesionalek (pertsona fisikoa edo juridikoa) nahi duenean prestazioetarako gaituta izan dadin eskatzeko. Hori guztia SPKLk<sup>1</sup> atariko IV. apartatutan xedatutakoaren babesean: *“botere publikoek orain ere askatasuna izango dute beren kabuz zerbitzu-kategoria jakin batzuk emateko; zehazki, pertsonentzako zerbitzu gisa ezagutzen direnak. Horien adibide dira zerbait gizarte- eta osasun-zerbitzu, farmazia-zerbitzuak barne, eta hezkuntza-zerbitzuak. Edo haiek halako moduz antolatu ahal izango dituzte, non ez den beharrezkoa izango kontratu publikorik egitea; esate baterako, zerbitzu horien finantzatze soilaz edo botere adjudikatzailerak aurrez finkatutako baldintzak betetzen dituzten operadore ekonomiko guztiei lizentziak edo baimenak emanaz, mugarik edo kuotarik gabe, baldin eta sistema horrek behar adinako publikotasuna bermatzen badu eta gardentasun-printzipioa eta diskriminazio-ezaren printzipioa betetzen baditu”*.

Beste hitz batzuetan esanda, kontratazio publikoko zuzentarauek eta indarreko SPKLk uzten dute bide berriak arakatzen osasun-zerbitzuak emateko, baldin eta errealitate bihurtzeko arau-proiektuak bultzatzeko eskatzen badute.

### **Egungo arau-esparrua**

Batzordean aztertzen ari den araua onesteko eskumena Eusko Jaurlaritzari dagokio, Gobernuaren Legeari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 16. artikulua xedatutakoaren babesean. Lege horren bidez araudiak egiteko ahalmena ematen zaio.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, herritarren osasun-babesarekiko eskubidea aitortzeak euskal aginte publikoei zenbait betebeharrak ezarri dizkie; betebeharrak horiek direla-eta, Euskal Administrazio Sanitarioari dagokio osasun publikoaren zaintza orokorra bermatzea, prebentziorako, osasuna sustatzeko neurrien bidez eta prestazio sanitario indibidualen bidez. Halaber, haren zeregina izango da baliabide-gailu egokia bermatzea, hots, izaera publiko zuzentzatutako prestazioak emateko baliabide-dispositibo egokia bermatzea, batez ere titularitate publikoko baliabideen hornidura, mantentze-lan eta antolamendu-hobekuntzaren bidez. Era berean, arau beraren 4. artikuluan zehaztutakoari jarraikiz, Euskadiko sistema sanitarioak Osasun Sistema Nazionalaren oinarriko antolamenduarekin bat etorritik, banako prestazio sanitarioak bermatuko ditu eta Eusko Jaurlaritzak Euskadiko lurraldean prestazio sanitarioen

---

<sup>1</sup> Sektore Publikoko Kontratuen Legea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentzaruen transposizioa egiten duena Espainiako Antolamendu juridikora. (Azaroaren 8ko 9/2017 Legea).

katalogoa zabaldu ahalko du.

Aho-hortzen osasunaren kasuan, Osasun Sistema Nazionalaren (OSN) kohesio eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen 12.2.i) artikulua aho-hortzen osasunaren arreta lehen mailako arretatik eman behar den prestazio gisa hartzen du. Era berean, OSNren zerbitzu erkideen zorroa eta eguneratzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuak aho-hortzen arreta II. eranskineko 9.4 apartatuan arautzen du, eta helburua da Osasun Sistema Nazionalan osasun-arreta egokirako ekitatea eta irisgarritasuna bermatzea.

Berriki, Osasun Ministerioko Prestazio, Aseguramendu eta Finantzaketa Batzordeak zorro erkidean zenbait eguneratze-proposamen baloratu eta onetsi ditu, besteak beste, aho-hortzen osasunaren arretari dagokionez<sup>2</sup>.

Aho-hortzen osasunean arreta-zerbitzuen zorra zabaltzen da, batetik, lurralde nazional guztian aho-hortzen osasunaren arreta-prestazioak homogeneizatzeko eta, horrela, bizilekua alde batera, berdintasunez eskuratzen direla bermatzeko eta, bestetik, batez ere ikuspegi prebentiboarekin zerbitzu erkideen zorroa gehitzeko.

Prestazio, Aseguramendu eta Finantzaketa Batzordeak 2021eko azaroaren 11n zabaltze-proposamena erabaki zuen, eta OSNren Lurralde arteko Kontseiluak 2021eko abenduaren 2an. Pixkana ezarriko da.

#### **Araua balioztatzea**

OSNren Lurralde arteko Kontseiluan Prestazio, Aseguramendu eta Finantzaketa Batzordearen egungo proposamenak honako kronograma hau du aho-hortzen osasun-arretaren arloan OSNren zorro erkidearen prestazio berriak hasteko<sup>3</sup>:

- 2022ko abenduan 6-14 urtekoak sartuko dira.
- 2023ko abenduan 0-5 urtekoak pixkana, autonomia erkidegoek zaintzarako egindako plangintza eta antolaketaren arabera.

Ildo horri jarraikiz, atsegin handiz ikusten dugu PADIren prestazioetan (dekretu-proiektuaren II. kapituluak) 7-14 urtekoentzat jada OSNren zorro berriko hortzeria iraunkorreko tratamendu guztiak sartzea eta zorro erkidean ez dauden tratamenduak (protesiak, zorroak...) ere eskaintzea. Are gehiago, zorro erkidetik berariaz kanpo gelditu diren tratamenduak ematen dira (hortzeria iraunkorretan pulpa-tratamenduak).

Izan ere, dekretu-proiektuaren II. kapituluko PADIren prestazioek *Osasun eta Kontsumo sailburuaren 1990eko maiatzaren 2ko Aginduaren (Haurren Hortzak Zaintzeko Programaren barruan haurren aho-hortzen zaintzarako nahitaezko gutxieneko edukia finkatzen du)* 2. artikuluan xedatutakoak hobetzen dituzte. Gainera, PADI-Osakidetza Ataleko buruak eta Gipuzkoako eta Bizkaiko lurralde-arduradun diren odontologoek egindako aldaketa-proposamenak kontuan hartu dira.

Dena den, etorkizunean aho-hortzen osasun onerako 7-15 urteko taldea funtsezkoa dela ados egonda

---

<sup>2</sup> OSNren zerbitzu erkideen zorroa eta eguneratzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuaren I., II., III., VI. eta VII. eranskinak aldatzen dituen agindu-proiektua.

<sup>3</sup> OSNren zerbitzu erkideen zorroa eta eguneratzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuaren I., II., III., VI. eta VII. eranskinak aldatzen dituen agindu-proiektua.

ere, adin goiztiarragoetatik hasi beharko litzatekeelakoan gaude, pertsona bakoitzak bere aho-garapena baitu. Adibide modura, Eusko Jaurlaritzak berak adierazten duenaren ildotik, 6 urteko adin-kohorteak hortzeria mistoa duenez, trata daitezkeen hortz-piezak ere baditu.

Horregatik, positibotzat jotzen dugu Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Aseguramendu eta Kontratazio Sanitarioko Zuzendaritzak eta Osakidetzako ordezkariak berriki<sup>4</sup> honako hau ondorioztatu izana:

- Osakidetzak gaituta dago zerbitzu berriak inplementatzeko aho-hortzen osasunaren zorroa zabaldu ondoren, eta bakoitzerako Ministerioak ezarri dituen epeak beteko ditu.
- Osakidetzak zerbitzu berri hauek beren baliabideekin emango ditu.

Eta hori hala da gure ustez helburu bikoitza lortu behar delako:

- Batetik, aho-hortzen osasuna adingabe guztiei bermatzea hasierako adin-kohorteetatik hasita.
- Bestetik, zerbitzua lehen arretan ematea Osakidetzako Aho-hortzen Osasun Unitateen bidez. Unitate horiek espezializatuta egongo dira haurren eta gazteen arretan.

#### **Neurriaren unibertsaltasunari buruz**

Funtsezkotzat jotzen dugu neurri honen unibertsaltasuna. Horregatik, unibertsaltasun horren errealitatea ebaluatzeko, beharrezkoa iruditzen zaigu PADIn arreta jasotzen duten haurren datuak, besteak beste, sexuaren arabera banatuta egotea.

## **IV.- ONDORIOA**

---

Euskadiko EGABren iritziz egokia da *“Euskal Autonomia Erkidegoko 7-15 urteko biztanleen aho-hortzen osasunaren arloko prestazio sanitarioari buruzko Dekretu-proiektua”* izapidetzea, kontsulta-organo honek egin dituen gogoetekin.

Bilbon, 2022ko ekinaren 17an

O.E. Presidentea

Idazkari nagusia

Emilia M. Málaga Pérez

Olatz Jaureguizar Ugarte